

Sindikalgintza eta politika

Euskaldunon Egunkaria, 1996-03-24: 3.

Euskal Herrian behintzat sindikalismoa eta politika espainola nahasian sartu zitzaizkigun Enkarterrietako meategietatik barrena, PSO(E) (1879) eta UGT (1879/1888) Pablo Igesiasek Madriletik Bilbora (1887) naturalki ekarriak izan ziren. Amaitu da, halere, aintzinako nagusitasun espainola, batez ere STV/ELAk (1910/1917) azken hamabost urte hauetan egin duen lan zuhurrari esker. Sindikalismoak langileen defentsa profesionala eta solidarioa bilatu behar du, eta nazionala errespetatu. Egin behar ez dituen da, batetik, sukursalismo kolonialaren kontrabandoa, eta gero, Estatu guztiahaldunaren babesean guganako anbiguetate salaketak leporatu; orain ELA/LABren artean lankidetza sindikala sortu den honetan, kasu, Espainolistek, euskararen exigentzia edo Euskadiren autodeterminazio demokratikoa biolentziari lotuak ikusten dituzte. Eta gertatzen dena da, bi sindikatoak, sindikalgintza eta herriaren askatasuna adigai mankomunak dituztela biak, ezin arrotz balira legez borrokatu, Madrilekoak bailiran! Lotura aparteko hauek nolana ere errepikatzen direnean sala daiteke anbiguetatea, baina ez bestela, adostasun puntualak argi daudenean.